

## **GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2015-2016 kurtsoa**

### **KULTUR ELKARTEEN FUNTZIO SOZIOHEZITZAILEEN ERAGINA KOMUNITATEAN. MIKELATS KULTUR ELKARTEA AZTERGAI**

**Egilea: Amaia Flores Apraiz**

**Zuzendaria: Aroia Kortabitarte Egido**

**Leioan, 2016ko maiatzaren 30n.**



## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
1. MARKO TEORIKOA.....	4
1.1. ELKARTE KULTURALAK ETA HAUEN FUNTZIOAK .....	4
1.2. KULTUR ELKARTEEN FUNTZIOAK KOMUNITATEAN .....	5
1.3. EBALUAZIOAREN GARRANTZIA.....	9
1.4. MIKELTAS KUTUR ELKARTEA .....	11
1.4.1. Jarduera kulturala .....	13
2. METODOLOGIA.....	13
3. EMAITZAK .....	16
4. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK .....	21
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	25
ERANSKINAK .....	27
1. ERANSKINA. MIKELTAS KULTUR ELKARTEAK BURUTZEN DITUEN EKINTZAK .....	28
2. ERANSKINA. INKESTA .....	29
3. ERANSKINA. KORRELAZIOEN TABLA .....	31

## **KULTUR ELKARTEEN FUNTZIO SOZIOHEZITZAILEEN ERAGINA KOMUNITATEAN. MIKELATS KULTUR ELKARTEA AZTERGAI**

**Amaia Flores Apraiz**

UPV/EHU

Lan honen bitartez, Elkarte Kulturalak komunitateetan duten eragina aztertu nahi izanda, San Migueleko komunitateak Mikelats Kultur Elkartearen funtzio soziohezitzaileei buruz duen hautematea ezagutzeko. Elkarte Kulturalak funtsezko papera dute herrien ondarearen sustapenean, baloreen transmisioan, herriaren identitate garapenean, parte hartzean eta bizi kalitatean. Ikerketa deskriptibo honetan jaso diren datu kuantitatiboak San Migueleko auzoan pasatu den inkestak jaso ditu, non auzokideek elkartearen funtzioak identifikatzen eta positiboki baloratzen dituzten. Gainera, emaitzetatik elkartearen indarrak eta ahuleziak detektatuz, proposamen bat garatzeko aukera ere eman du.

*Funtzio soziohezitzailea, Elkarte Kulturala, parte hartzea, komunitatea, inklusio soziala, komunikazioa*

A través de este trabajo se ha querido analizar el impacto de las funciones socioeducativas de las Asociaciones Culturales en sus propias comunidades, y así poder conocer la percepción de la comunidad de San Miguel sobre las funciones socioeducativas de la Asociación Cultural Mikelats. Las Asociaciones Culturales tienen un papel fundamental en la promoción del patrimonio de los pueblos, en la transmisión de valores, en el desarrollo de la identidad de las personas, en la participación y en la calidad de vida de las personas. Los datos cuantitativos de este estudio descriptivo se han recogido a través de unas encuestas pasadas a los ciudadanos del barrio de San Miguel, los cuales han sabido identificar y valorar positivamente las funciones de la asociación. Del mismo modo, se han podido identificar los puntos fuertes y débiles de la asociación, dando la posibilidad de desarrollar una propuesta.

*Función socioeducativa, Asociación Cultural, participación, comunidad, inclusión social, comunicación*

Through this research I have tried to analyze the impact of socio-educational roles of Cultural Associations in their own communities. In particular, we would like to inquire into the perception of San Miguel's community about the social-educational roles of Mikelats Cultural Association. It is known that Cultural Associations have an important purpose promoting local heritage, transmitting values, developing people's identity, promoting participation and increasing the quality of life. In order to carry out this descriptive research, that was based on a quantitative method, I designed a survey and handed out in the neighborhood of San Miguel. The results show that the community is able to identify and value favorably the functions of the association. This study also serves to identify the strengths and weaknesses of the association, making possible the design of a new educational proposal.

*Social and educational role, Cultural Association, participation, community, inclusion, communication*

## SARRERA

Herritarrek gero eta gehiago bilatzen dute haien identitatea, haien erroak eta inguratzen dien munduaren ulermena Elkarte Kulturaletan (Dominguez, 2003); hori dela eta, hauek, herriaren ondare historiko-kulturala baloratzeko gaitasuna eman behar digute herritarroi, besteak beste, identitate kulturala finkatzen lagunduz. Pertsona guztiok parte hartzeko eta ondare kulturalaz gozatzeko eskubidea izan behar dugu, Elkarte Kulturalak olgetarako lekua direnaren ideia tradizionaletik aldenduz.

Gaitasun hori elkarteek gauzatzen duten funtzio soziohezitzaileen bidez lor daiteke, komunitate osoan eragina dutenak, balore sozialak transmititzen dituztenak, herriaren protagonismoa eta inklusio soziala bilatzen dutenak.

Herri baten kultura era dinamiko, aktibo, integratzaile eta berezko batean bizitzea posiblea da, elkarte hauek erreminta hezitzaileak baitira. Horregatik guztiagatik, hurrengo lanean, elkarte kulturalen funtzioak aztertu ditugu, ikerketa enpiriko baten bidez, elkarte zehatz batean zentratuz; Mikelats Kultur Elkartean, alegia. Ikerketak elkarte honek gauzatzen duen lana ezagutzeko du helburu. Horretarako, inkesta bat diseinatu eta pasatu da hori ebaluatzeko. Izan ere, elkarte kulturek komunitateen parte hartzea alor guztietara orientatu behar dute (ebaluazioa beste alor bat gehiago izanez) hauek komunitateen beharrei erantzuna ematen ari diren jakiteko.

Mikelats hezkuntza esplizituki bermatzen duen elkarte da, San Miguel auzoan (Basauri), auzokide batzuen nahia eta gogoekin, kultura sustatzeko helburuarekin sortu izan zena. Taldea osatzen duten kideek ebaluazio parte hartzailea biltzen duen ebaluaziorik egiteko aukerarik ez dute. Beraz, San Migueleko auzokidea naizen aldetik, elkarte hurbiletik ezagutzen dudanez eta burutzen duten lana San Miguel auzoarentzat beharrezkoa dela uste dudanez, aukera ezin hobea ikusi dut, alde batetik, ikerketaren inguruan ezagutzak handitzeko; eta bestetik, nire lana haien lanaren probetxurako.

Gizarte Hezitzaileen heziketa funtzioa elkarteetan (hezkuntza ez formalean) ikustera ohituta gaude, baina hauek kulturarekin erlazionatzen baditugu ere, haien paperaz ahazten gara. Lan honek ikertzen eta frogatzen du kultur elkarteetan, funtzio hezitzailea ezinbestekoa dela, hori dela eta ikerlan honekin, gure papera itzaletik ateratzea espero dut. Era berean, Elkarte Kulturalen funtzio soziohezitzailearen garrantzia eta hauen ebaluaketaren inguruan ez dago ikerketa askorik, are gutxiago ebaluazioak komunitatearen hautematek abiatuta egiten badira. Hortaz, ikerlan honek behar besteko garrantzia dauka mugak hedatzeko eta ikuspuntu berriak kontuan hartzeko.

## 1. MARKO TEORIKOA

### 1.1. ELKARTE KULTURALAK ETA HAUEN FUNTZIOAK

7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzko 7. artikulua horrela definitzen du elkarte: elkarte bat hiru pertsona fisiko edo juridiko edo gehiagoren arteko akordio baten bidez osatzen den pertsona juridikoa da; helburu komun, zilegi, interes orokor edo bereziak lortzeko ezagutzak, baliabideak eta ekintzak partekatzeko konpromisoa hartzen duelarik eta elkartearen funtzionamendua azaltzen dituzten Estatutuetan oinarriturik.

Elkarte batek egitura formala du, auto-kontrola izateko gaitasuna du, irabazi asmorik gabekoa da eta boluntarioen parte hartzea onartzen du (Otero, 2009). Beraz, egitura horren barruan, kulturako, aisia eta olgetako eta gizarte eta elkartasunezko jarduerak egingo dira, baita beste jarduera batzuk ere (7/2007 Legea).

Elkarteen xedeak eremu desberdinak hartzen ditu barne: kultura, kirola, hezkuntza eta ikerketa, osasuna, zerbitzu sozialak, ingurunea, komunitate garapena, eskubide zibilak eta abar (Carrera, 2009). Lan honetan, zehazki, kulturen eta komunitatearen garapenean ipiniko dugu arreta, Elkarte Kulturaletan, hain zuzen.

Orokorrean, kultura ehun-soziala modukoa da, gizarte jakin baten forma eta adierazpen desberdinak barnean hartzen dituena. Hala dela, ohiturak, praktikak, izaera, erritualak, janzteko era, jokaera arauak, baloreak, sinesmenak, objektu materialak, ideologia eta erlijioa kulturaren barne aurkitzen diren aspektuak dira; belaunaldiz belaunaldi bizigizartean ikasitakoak. Kulturak gizakiari bere buruaz hausnartzeko gaitasuna eskaintzen dio; kulturaren bitartez, gizabanakoak baloreak bereizten ditu eta esanahi berriak bilatzen ditu (UNESCO, 1982).

Hala bada, elkarte kulturalak, kulturaren kontzeptua lantzen, sustatzen eta zabaltzen duten gertaerak bultzatzen dituzte, ekintza batzuen bidez; ezagutza, ulertze eta indibiduo eta komunitateen identitate kulturala indartzea onartzen dutenak, alegia. Elkarte kulturalak komunitatearen parte hartzea baitan hartzen dute tradizioak mantendu eta ekintza kulturalak gauzatu ahal izateko; eta hori guztia aurrera eraman ahal izateko, hiru esku-hartze eremuetan lan egiten dute (Ventosa, 1993):

- Kulturala. Kulturaren eta artearen sormena, adierazpena eta sorkuntzaren garapena saiatzen da. Helburuak ekintzan eta produktuan zentratuta egongo dira.
- Soziala. Dimentsio komunitarioari bideratuta; parte hartze eta asoziazionismoaren garapena, giza harremanak hobetzeko.

- Hezkuntza. Ikaskuntza, formazio iraunkorra, gizarteratzeko baliabide pertsonalen optimizazioa edo hezkuntza aisialdirako, motibazioa garatzeko orientatua.

## 1.2. KULTUR ELKARTEEN FUNTZIOAK KOMUNITATEAN

Kultur Elkarteek burutzen duten lana proiektu hezitzaileetan idazten dena baino haratago doa. Komunitatera, auzokideetara, pertsonetara zuzentzen dira, burutzen dituzten ekintzak haiengan eragina izateko. Hortaz, elkarte hauen funtzioak komunitatearen parte hartzera, eta horren eraginez, bizi kalitatea hobetzera eta inklusio sozialera bideratuta egongo dira.

### **1. funtzioa: aisialdirako hautabideak ematea garapen soziala lortzeko eta ondarea berreskuratzeko.**

Azkenengo hamarkadetan, aisialdirako ekintzak<sup>1</sup> garapen sozialaren erreferente bilakatu dira (Otero, 2009). Aisiak sormen kulturala, komunitatearen parte hartze aktiboa, adierazpen askea, interkomunikazioa, esperientzien aberastasuna, konpromiso soziala eta abarreko aukerak eman behar ditu (Escarbajal, 1993).

Ondare kulturalak -tradizioan oinarrituta eta kultura batetik sortutako kultura formen multzotik osatzen duen kultura tradizionala eta popularra (edo folklorikoa)-, herrien identitate ezaugarriak eta praktika kolektiboak agerian jartzen laguntzen du, talde sozialak garatzen lortuz (UNESCO, 2003). Hortaz, aisiaren bidez ondareen berreskurapenak komunitate bateko kideek beraien historia pertsonala eta taldekoa elkartzeko, erroei hurbiltzeko, etorkizuneko belaunaldiek ezagutzeko eta iraganaz gozarazteko aukera eskaintzen du, komunitatearen bizi kalitatea hobetuz eta hauen identitatean eraginez (Márquez, 2000).

### **2. funtzioa: parte hartzea sustatzea, komunitateari protagonismoa emanez.**

Aipatu ditugun helburu kulturalak lortzeko, elkarte kulturek sustatzen duten aisia indibiduen eta taldeen parte hartzean oinarritzen da (Cid & Peres, 2007). Kulturaren kontzeptua ez da, soilik, kontsumitzearena; kultura parte hartzailea izan behar da,

---

<sup>1</sup> Aisialdian pertsonalki aberasten gaituzten ekintzak burutzen ditugu, sormena, gaitasunak, portaera eta oreka pertsonala garatuz. Norbanakoak duen aisialdian baliagarri, emankor eta onuragarriak diren okupazio eta ekintzetara bideratu behar ditu (Carrera, 2009).

komunitatearen adierazpen kulturala bultzatzen duena, alegia (Barrado, 1982). Beraz, parte hartzea elkarte kulturalen behar-beharrezko baldintzan bihurtzen da (Gillet, 2007). Parte hartzea komunitateak duen protagonismoa sustatuz lortzen da, komunitatea esku hartzeko subjektua soilik ez delako (Pascual, 2007). Komunitatean sareak eta loturak sortzen lor daiteke komunitateko pertsona bakoitza prozesu baten protagonista bihurtzea eta ahalduz. Hori dela eta, kultur elkarteak dinamizatzailer/katalizatzaile/laguntzaile gisa ulertu behar dira; jendea sorrarazi, kitzikatu, bultzatu, sentsibilizatu, motibatu eta interesa pizten dutenak, elkarteak bultzatzen dituen ekintzetan parte hartze aktiboa lortzeko (Cano, 2005).

Partaidetza hobetzeko, solidaritatea gehituko duten eta adierazpen eta elkarriketa-modu berriak onartuko duten eredu eta dinamismo kultural berriak aurkitzea beharrezkoa da; ekimen pertsonala eta taldekoa kultura herrikoiago eta demokratikoago baten oinarri bezala kontsideratuko direlarik (Placer, 1991).

Argi izan behar dugu, parte hartzea ez dela inprobisatzen, ez dela bat-batean sortzen; eraikitzen eta garatzen den gauza baizik. Pertsona bakoitza desberdina da, baita bere motibazioa, gaitasuna eta formazioa ere; hori dela eta, norbanakoak modu eta intentsitate desberdinarekin parte hartzen du. Hala bada, pertsona guztiok izan behar dute aukera gaitasun pertsonalak garatzeko eta horrela, parte hartu ahal izateko (Bolunta: boluntarioria eta parte hartzeko agentzia, 2016).

### **3. funtzioa: inklusioa lortzea.**

Parte hartzea eraikitzean, ekintza komunitarioa gauzatzen da. Ekintzak kolektibitatean burutzen baditugu, aisia norbanakoaren trebetasun sozialak indartzen dituen gizarrekotzeko agentean bihurtzen da, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, gure iritziak adierazteko... aukera gisa bilakatuz (Otero, 2009).

Ekintza komunitarioa estrategia soziohezitzailetzat ulertuta dago, kolektibo batek sustatutako ekimen sozialak biltzen dituen prozesu komunitarioa, pertsona eta komunitateen dimentsio guztien bizi kalitatea hobetzen saiatzen dena.

Prozesu komunitario osoan ematen den aktoreen/eragileen elkarrekin dela eta, ekintza komunitarioak osagai pedagogiko eta formatibo altua duela kontsideratzen da. Parte hartze soziokomunitarioak ikaskuntzak, inklusioa (Hector, 2014), gaitasun pertsonalen garapena (taldekoak eta auzokoak); autolaguntza eta solidaritatearen sustapena eta komunitatearen baliabide propioen bultzapena ahalbidetzen du.

Ekintza komunitarioak printzipio hezigarria duelarik, parte hartzen duten pertsonen inklusio, prebentzio, sustapen eta eskuratze gaitasun prozesuak gauzatzen dira (Núñez, 2014).

Horrek guztiak pedagogia sozialari buruz hitz egitera ematen gaitu, harreman estua baitauka komunitatearekin eta honek lortzen duen garrantzia pertsonen garapenean eta hezkuntza prozesuetan. Pedagogia sozialaren praktikak pertsonen ongizatera orientatuta daude; eskusiorako elementu prebentibo gisa; eta gizarte inklusiorako bide gisa. Perspektiba hezitzaile batetik pertsonaren ongizate pertsonala eta soziala sendotuz, pertsonen trebetasun sozialak garatu daitezke, gizarteak eskatzen dituen konpetentzia sozialak bereganatzeko (Hamalainen, 2012, Núñez, 2014an aipatua). Espezifikoki, hiru esku hartze eremuetan laguntzen du:

- Gizarte eskusioaren hezkuntza aboradatzea. Pertsonen gizarte inklusioa eta ongizatea hobetzea.
- Gizalegezko hezkuntza. Herritar aktiboak bilatzen dira, esku hartzea herritarren hezkuntzan orientatuta dagoen.
- Pertsonen babesa eta ardura, hezkuntzaren eremutik.

#### **4. funtzioa: agente transmisorea izatea, esku hartze soziokulturalaren bitartez.**

Kultur elkarteak, aipatu berri dugun eran, kultura erreproduzitzailak izatetik gizarte inklusioa eta komunitatearen garapena lortzeko erreminta izatera pasatu dira. Animazio Soziokulturala, azken hau lortzeko baliabide hezitzailea da, kultura bizitzen ikasteko modu dinamiko, aktibo, integratzaile eta berezkoa baitu (Escarbajal & Martínez, 2012).

Animazio soziokulturala, hortaz, esku hartze soziohezitzailearen metodologia kontsideratzen da; pertsonen antolatze eta protagonismora zuzenduta dago eta garapen komunitario eta kulturala bilatzen du (Calvo, 2002). Bestalde, dituen proiektuek eta ekimen kulturek, heziketa-proiektuetan dute oinarria.

Moner Olmos adituaren ustetan (Cruz, 2010) animazio soziokulturalak ildo hauei erantzun beharko lioke:

- 1) Festaren zentzua eta aisialdiaren benetako bizikidetzaren berreskurapena.
- 2) Herriaren eta komunitatearen identitatea berreskuratzea, berezitasun kultural eta sozialak eta idiosinkrasia errespetatuz.
- 3) Kulturaren sustapena, kontsumo kulturala baino haratago doana.
- 4) Eskaintza kultural desberdinen arteko espiritu kritikoa garatzea. Horrek kulturaren sarbidean muga ekonomikorik ez egotea dakar.



5) Kooperazio harremanak sortu, bizikidetasunaren ordeztu.

Orokorrean, animazio soziohezitzaileak pertsonaren garapen integralean<sup>2</sup> eragina izango du, eta motibazioa eta laguntza ezinbesteko gakoak bihurtzen dira; pertsonak eta taldeak beraien gaitasun eta jarreretan auto-garatzeko asmoz, estimulatzerara, motibatzerara eta sustatzerara zuzendutako prozesu deliberatu eta konstante bat delako (Placer, 1991).

Lehen aipatu ditugun tradizio kulturei eta tokiko historia propioari balio handiagoa emateko (Calvo, 2002), ezinbestekoa da komunitateak elkar izate sentimendua garatzea, hau da, konpromiso baloreetan sinestea, eta komunitatearen kohesioak lortzea (Cid & Peres, 2007). Orain arte ikusi denez, Elkarte Kulturelek hauen garrantziaren transmisore gisa lan egiten dute; hau da, zenbait informazio, ezagutza, teknika sozial, gaitasun eta trebakuntza berrien ikaskuntzan laguntzen dute, norbanakoaren arazo eta beharrei aurre egiten jakiteko.

Hori dela eta, kooperazio eta komunikazio jarrerak sortu behar dituzte, pertsonok elkarrekin lan egiteko (Cano, 2005). Bada, komunikazio soziala garatzen saiatzea, adierazpen askatasuna, hitzaren erabilera, hartu-eman, dialogoa, harremana eta pertsonen arteko interakzioa sortzea ezinbestekoa izango da (Gillet, 2007). Modu hezitzaile batean, hain garrantzitsuak diren elementuak -identitatea eta parte izatearen sententia- lantzen dira (Escarbajal & Martínez, 2012).

Aipatu ditugun baloreez aparte, hurrengoak ere transmititzea ezinbestekoa dute (Chacón, 2010):

- Demokrazia. Ekintza parte hartzailea, ikasbide eta ideologia askatasuna.
- Aniztasuna. Esku hartzea gizarte aniztasunean oinarritzen da, balore aniztasunaren alde; aniztasun ideologiko, politikoa, soziala eta kulturala.
- Kontzientziarazioa. Kontzientzia hartzea, komunikazioan, aurkikuntzan, erantzukizun kulturaletan, erakunde sozialetan eta identitate propioaren hausnarketan eta eraldatzeko konpromisoa hartzea.
- Giza harremanak. Bizi kalitate egokia lortzeko beharrezkoa da gizarte eta kulturaren sustraitzea, giza baloreen bidez.
- Autonomia pertsonala. Hezkuntzaren bitartez, norbanakoak hausnarketa kritikoa, epaiketa, autonomia eta konpromisoa bereganatzen du.

---

<sup>2</sup> Pertsonaren gaitasunak garatzeko, pertsonaren dimentsio guztiak kontuan hartzen dituen prozesu jarraitua.

## 5. funtzioa: komunikazio bideratzailea

Aurreko funtzioetan aipatu dugu komunikazioaren garrantzia. Era horretan, transmisore izateaz gain, komunikazio bideratzaile izan beharko dute elkarrekin.

Komunitate bateko kideek, identifikatzen diren elementu erreferentzialak bilatzen dituzte eta erreferentzia horiekin harreman afektiboak eta adiskidekoak garatzen dituzte. Afektibitate loturak identifikatzen direnean, taldea hazten da eta erabaki bateratu sendagoak hartzen dira (Cid & Peres, 2007). Elkarrekin eta pertsonen arteko komunikazioa hobetzeko eta hedatzen duten informazioa modu egokian egiteko, hurrengo atalak kontuan hartu behar dira (Bolunta: boluntariotza eta parte hartzeko agentzia, 2016):

- a) **Jakinaraziko den kontuaz jakinaren gainean egotea.**
- b) **Testuinguruaren ezagutza:** aldez aurretiko baldintza da esku hartuko den testuinguruaren ezagutzearena: zeintzuk diren indarrak, akatsak, gatazkak...
- c) **Elkarrekin gizarte maila:** kanpoko edozein prozesu komunikatzailean *feedback*-a egon behar da; hau da, behin elkarrekin informazioa hedatuta, hartzaileen erantzuna jaso behar du. Modu horretan, zabaldu duen mezua zein puntura arte izan da eraginkorra, barneratze gradua ezagutzea...
- d) **Hartzaileak:** desberdindu behar da nori zuzentzen ari zaion informazioa. Kolektibo bakoitza desberdina da, kode, hizkuntza eta behar desberdinak dituzte. Hori dela eta, estrategia desberdinak garatu behar dituzte hizkuntza eta baliabideak moldatuz, mezuaren hartzaileen ezaugarrietara.
- e) **Gaiaren garrantzia eta momentu egokia:** gai bakoitzak momentu konkretu bat dauka eta momentu bakoitzak gai bat. Gaia eta momentua ondo aukeratu behar da jendearen interesa lortzeko.
- f) **Erabiliko dituzten baliabideak:** mezuaren, hartzailearen eta eskura dituzten baliabideen arabera erabaki behar da zein den baliabiderik egokiena hartzaileetara heltzeko: triptikoak, kartelak, sare sozialak...

### 1.3. EBALUAZIOAREN GARRANTZIA

Funtzio eta esku hartze soziohezitzaile guztietan, programak planifikatu, koordinatu eta ebaluatu behar dira. Horretarako, komunitatean dauden beste elkarrekin lan egitea, ikerketa soziala eta kulturala egitea eta ekintzak ebaluatzeko gaitasuna areagotzea ezinbestekoa da.

Komenigarria eta beharrezkoa da ekintza komunitarioa burutzen dituzten proiektuetan programen ebaluazioa<sup>3</sup> txertatzea (Cid & Peres, 2007), ebaluazioa ekintzek eta programek jarraitu duten prozesuaren eta urratsen hausnarketari bide emateko ezinbestekoa baita. Ebaluazioak proiektu batean planteatzen diren helburuak lortu diren ala ez aztertzeko hautabidea da; arrakastak eta porrotak eta hutsuneak eta akatsak identifikatzeko; hobekuntzak planteatzeko; eraginkorra izan dena indartzeko, etab. Horrela, etorkizunerako beharrezkoak diren moldaketak eta lehentasunak finkatu ahalko dira.

Ekintza komunitarioaren esparruan beharrezkoa ikusten da bai elkarteek bai bere profesionalak konpetentzia ebaluatzaileak izatea; garatzen dituzten programen ekintza ebaluatzaileak burutzea uzten dizkietenak (Núñez, 2014).

Ebaluazioak esku hartzearen aspektu positibo eta negatiboak eta helburuak lortzeko laguntzen duten elementuak identifikatzen lagundu diezaguke; praktikaren hobekuntzara orientatuz. Informazioaren jasotze sistematikotik abiatuz, testuinguruen beharrak, programen kalitatea eta benetako beharren koherentzia eta egokitzapena ezagut daiteke (Pascual, 2007).

Egun, ebaluazio joera anitzak ikus daitezke; hala nola, eredu integratzaile, sakona eta parte hartzaileak dituzten praktika ebaluatzaileak, programetan parte hartzen duten pertsonen iritziak eta balorazioak eranstu dituenak. Hori dela eta, elkarte kulturalak ebaluazioaren alde apustu egin behar dute, baina, hori bai, ebaluazio parte hartzailearen alde; ebaluazio eta esku hartze soziohezitzailearen praktika eta estrategia metodologikoa; profesionalen eta inplikaturik dauden pertsonen ezagutzak eta testuinguruen esperientziak lotzen dituenak (Núñez, 2014).

Elkarte kulturalen funtzioetan aipatu dugun arabera, ekintza komunitarioa prozesu parte hartzailea da, herritarren bizi kalitatea hobetzeko komunitatearen beharrei erantzuna ematen saiatzen dena. Hori dela eta, kultur elkarteak ingurune aproposa bihurtzen dira pertsonen parte hartzera orientatuta dauden ebaluazioak garatzeko; urteetan zehar egin den analisian eta balorazioan komunitateei protagonismoa ematen dion estrategia, alegia. Ebaluazio parte hartzaileak hurrengo helburuak ditu (Núñez, 2014): a) ebaluazio

---

<sup>3</sup> Ebaluazioa modu sistematikoan, zehatzean, planifikatuan, objektiboan, gidatuan, sinesgarrian, fidagarrian eta baliozkoan egindako informazio garrantzitsuaren identifikazio, batze eta aztertze prozesua da, kualitatiboa edo kuantitatiboa izan daitekeena; ezarritako erreferentzia eta irizpideetan oinarrituta, hezkuntza-objektuaren balioa eta meritua zehazteko, objektua optimizatze hartu behar diren erabakiak bideratzeko (Lukas & Santiago, 2009).

prozesuak hobetzea, b) ebaluatutako programak hobetzea, c) konpetentzia ebaluatzaileko formatzea, d) inplikatzeko diren pertsonen ahalduntzea erraztea.

Ebaluazio praktika honek komunitatean eta elkartearen barruan ezagutzak sortzean oinarritzen da eta inklusio zein deliberazio printzipioetan sostengatzen da. Ebaluazioa lankidetzara prozesu bezala ulertu eta transformatu behar da, non parte hartzaileek baita programaren kudeatzaileek ere beraien errendimendua gainbegiratzeko eta ebaluatzeko gaitasuna lortzen duten. Horregatik, era honetako ebaluaketak, parte hartzaile guztien ikuspuntuak eta inplikaturik dagoen elkartearen eta komunitatearen ezagutzak errespetatzen eta baloratzen ditu (Fetterman, 2005, Núñez, 2014an aipatua).

#### 1.4. MIKELTAS KUTUR ELKARTEA

Elkarte Kulturelek komunitatean duten funtzio hezitzailea hurbiletik ezagutzeko, Mikelats Kultur Elkartearekin lan egiteko aukera izan dut. Bere komunitatean burutzen duen lana ezagutzeko, ebaluazio parte hartzailetik abiatuko dut Gradu Amaierako Lan hau, komunitateak ebaluazioaren horren parte -protagonistak- bihurtuz.

Mikelats Kultur Elkarte Basaurin (41.175 biztanle<sup>4</sup>) aurkitzen da, San Miguelgo auzoan, zehazki. Herri-auzo hau Basauriren herriaren erdigunetik kilometro eta erdira kokatzen da. Egun, 4299 biztanle ditu; 2084 gizon eta 2215 emakume:

- 0-16 urte bitartean: 688.
- 17-30 urte bitartean: 478.
- 31-45 urte bitartean: 1015.
- 46-60 urte bitartean: 1130.
- 61 urtetik aurrera: 988.

San Miguelen beste hainbat elkarte<sup>5</sup> ere badaude: San Miguelgo Auzokideen Elkarte, San Miguel Bizirik, Sociedad Indartsu Club, Asociacion de Comerciantes San Miguel, Peña ehun urte Athletic Club, Alesi: Asociacion de baile de San Miguel, etab.

Mikelats Kultur Elkarte 1997ko urtarrilaren zazpian sortu zen kultura sustatzeko helburuarekin: ekintza kulturalak, kiroltakoak eta dibertimenduzkoak sustatzea, esku hartzen den testuinguruan kulturaren garapen hobea lortzeko, eta 2005ean Mikelatsen berfundazioa eman zen, Zuzendaritza Batzordea aldatu zelarik.

<sup>4</sup> Basauriko biztanleen kopurua, 2015eko abenduaren 2an.

<sup>5</sup> Basauri. <http://www.basauri.net/>

Egun, Mikelats irabazi asmorik gabeko elkarte da, antolatuta dauden pertsonen bultzatuta, proiektu berritzaile eta dibertsifikatuarekin, pertsona guztientzat zuzendua. Elkartearen xedea kultura eta kirol ekintzak antolatzea da, auzokide guztien parte hartze eta gozamenerako, edozein adina izanik.

Mikelats proiektuaren baloreak hurrengoak dira:

- Kultura zein kirolaren behar eta joeren *etengabeko analisia*, baita baliabide berriek eta metodo pedagogikoez eta antolakuntzakoek Mikelats elkarteari eskaintzen dizkieten aukerarenak ere.
- Mikelats elkarte osatzen duten pertsona guztien *kooperazioa* guztien lana eta esfortzua bateratzeko, auzokideentzat kultura eta kirol zerbitzu hobereanean.
- *Informazio eta komunikazio* arina eta irekia konpromisoa, parte hartzea eta auzokide guztien integrazioa errazteko.
- *Etengabeko hobekuntza* baliabideen optimizazio eta prozesuen arrazionalizazioaren sistema iraunkor batean.
- *Jarrera positiboak*: erakundea bertako kide guztietan, hurrengo jarrerak iradoki eta sustatzen saiatuko:
  - Iniziatiba, kuriositatea eta kreatibitatea.
  - Ikasteko eta lan on baten aldeko interesa.
  - Ardura pertsonala, esfortzua eta hobetzea.
  - Laguntasuna bizikidetasunean eta ideia aniztasunei errespetua.
  - Baliabideak mugatuak dira.
- Kide guztien *autonomia* sustatzea, talde aniztasun, interes, gaitasun eta erritmoa errespetatuz.
- *Eginkizun kulturala eta kirolekoa*: zuzendaritza talde eta talde teknikoan egitekoan konfiantza eta errespetua izatea, formazio iraunkorra eta eginkizun eta garapen kultural eta kirolekoan baliabideak emanez.
- *Lankidetzak* elkarte berarekin, beste erakunde eta instituzio kultural eta kirolekoekin eta konpromisoa hartzen duten beste batzuekin.
- Eskubide eta betebeharrak ditugun *herritarrok*, ditugun mugen eta jarri ahal dieten arriskueta kontzienteak izanik.
- *Euskararen* normalizazioaren aldeko konpromisoa burututako ekintza guztien argitalpenean, hedapenean eta gauzatzean.

### 1.4.1. Jarduera kulturala

#### **Interes soziala:**

Mikelats Elkartek antolatzen eta bultzatzen dituen ekintza guztiak (hauek ezagutzeko ikus 1. eranskina) biztanleriaren sektore guztietara zuzenduta daude, kategoria edo adin konkretu bat eskatzen duten ekintza konkretuak izan ezik. Elkartarekin inplikatzen diren pertsonak, alde batetik, lau dira (elkartekoak bertakoak); eta bestetik, ekintzetan aritzen diren pertsona laguntzaileak.

Burutzen diren ekintzen erabiltzaileak edo hartzaileak herriaren auzokideak eta ondokoak dira. Ekintza bakoitzaren kostua urtean burutzen den memorian aipatzen da, horren justifikazioa erantsiz.

#### **Aniztasunaren lanketa:**

Mikelats elkartek argitaratzen dituen hedapen grafiko guztiak (kartelak, iragarkiak eta abar) bi hizkuntza ofizialetan gauzatzen dira.

Era berean, antolatzen diren ekintza guztiak pertsona guztien parte hartzera bideratuta daude, etnia edo sexuaren arabera inor baztertu gabe. Kultur aniztasuna integratzen duten ekintzak burutzen ditu, San Migel auzoan aurkitzen den herritartasun eta kultura aniztasuna dela medio.

Era berean, emakumeenganako indarkeria errotik kentzeko, Marienearen<sup>6</sup> laguntza eta materiala erabiltzen dute herria sentsibilizatzeko.

Mikelats elkartek antolatzen dituen kiroleko ekitaldiak ez dute saririk; parte hartzaile guztiek ekintzan banatzen den sari berdina jasoko dute, ez-lehiakortasuna eta egoera fisikoaren parte hartzen independentea indartuz, desgaitasun funtzionala duten pertsonak parte hartu dezaten. Horretarako, ekintzen topalekuak sarbide egokia izaten saiatzen dira.

## 2. METODOLOGIA

Ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko, lau fase desberdinetan banatu izan da.

*Lehenengo fasean*, gaiaren eta elkartearen aukeraketa, elkartarekin lehenengo kontaktua, helburuen finkapena, marko teorikoaren erreferentziak eta ikerketa burutzeko teknikak aukeratu ziren.

---

<sup>6</sup> Marienea: Casa de las Mujeres de Basauri. <http://berdintasuna.basauri.net/es/>

Ikerketari hasiera emateko, Mikelats K. E.aren egoera aztertzea erabaki zen: noizbait ebaluaziorik egin dute? Hezkuntza esplizituki bermatzen duen elkartearen denez, dituen funtzioak (balore sozialen transmisioa, parte hartzea sustatzea, kulturaren ondarearen transmisioa, identitate kulturala, komunikazioaren jarrerak sortzea eta auzoari protagonismoa ematea) San Miguelgo auzora heltzen dira? Zer pentsatzen dute auzokideek gauzatzen dituzten ekintzei buruz? Haien iritzia kontuan hartzen da? Zein aldagaik eragiten du jendearen parte hartzean eta ekintzen antolakuntzan? Zer aspektu positibo ditu elkarteak? Eta negatiboak?

Galdera hauei guztiei erantzuteko, ikerketa deskriptibo honen helburu orokorra eta espezifikoak garatu ziren:

**Helburu orokorra:** Mikeltas Kultur Elkartearen funtzio soziohezitzaileen ebaluazioan San Miguelgo auzoak duen iritzia ezagutzea.

**Helburu espezifikoak:**

1. San Miguelgo auzoak Mikeltas Kultur Elkartearen funtzioei buruz duen hautematea zein den jakitea.
2. Mikeltas Kultur Elkarteak burutzen dituen ekintzen kudeaketa eta difusioari buruzko iritzia ikustea.
3. San Miguelgo auzoa Mikeltas Kultur Elkartearen inguruko parte hartzearen ezaugarriak ikertzea.
4. Auzokideen hautematek elkartearen mehatxuak, ahuleziak, indargarriak eta aukerak aztertzea.

Ikerketa garapenean informazioa batzeko erabilitako teknika edo instrumentua galdetegia (ikus 2. eranskina) izan zen, inkesta, hain zuzen ere. Inkesta, ad hoc eginikoa, helburu espezifikoari erantzuna emateko sortu zen. Inkesta honetan erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da, hau da, analisi kuantitatiboa erabili da, informazioaren datuen zenbakiak eta portzentajeak batzeko eta edukia aztertzeko.

Inkestak 25 item ditu guztira, Mikeltas Kultur Elkartearekin zuzenean lotura dutenak. Hainbat gai landu egin dira, zazpi gai, zehazki: jendeak Mikeltas Elkarteari buruz duen ezagutza, pertzepzioa, elkartearen identitatea, komunikazioa, jendearen parte hartzea, ekintzak eta hobekuntzak eta proposamenak.

Lehenengo sei gaiak inkestaren lehenengo 22 itemen bidez jaso dira, hauek anitzak izanda: galdera itxiak, dikotomikoak eta baztertzaileak, lagina ezagutzeko (sexua eta seme-alabak duten); galdera itxiak, hautabide anitzekoak eta baztertzaileak (bizitokia

eta ekintzak ez gustatzekotan adierazten duten jarrera); galdera itxiak ez baztertzailak, aukera bat baino gehiago aukeratzeko (ekintzei buruz informatzeko baliabideak); eta azkenik, galdera itxiak ordinalak (Likert eskala, bost mailako graduazioarekin). Azkenengo gaia (proposamenak eta hobekuntzak), aldiz, hiru galdera irekiekin gauzatu da.


*Bigarren fasea*, landa eremuaren lanketa izan da. Datuen bilketa sistematikoa 2016ko martxoaren azkenengo hiru astetan burutu zen, San Miguelgo auzoan, data ausazkoa izanik. Guztira 143 inkesta pasatu ziren eta lagina zorizkoa izan zen.

*Hirugarren fasean*, datuen analisisian, inkestetan jasotako informazio guztia bildu zen, lehendabizi kategoriaka Excel programan gehituz, eta ondoren, SSPS programaren bidez, ikerketaren helbururako beharrezkoak ziren emaitzen informazioa lortuz. Horrela, datuen analisi deskriptiboa gauzatu ahal izan zen.

*Laugarren fasean*, eta azkenekoan, datuen informazioa aztertu eta emaitzak aintzat hartuta, ondorioen lanketari ekin zitzaion marko teorikoarekin egiaztatzeke, eta horrela, Mikelats Kultur Elkarteari proposamenak aurkezteke.

Inkestaren datuen analisi deskriptiboa garatzeko, metodologian aipatu ditugun lau helburuetan oinarrituko gara. Inkesta, San Miguel auzoan pasatu zen, guztira 143 inkesta burutuz. Inkesta erantzun duten %51 (n=73) gizonezkoa izan da, emakumeen %49ren (n=70) aurrean. Era berean, %89,5 (n=128) San Miguel auzokoa da. Aipatzearren, inkestatuen %48,3ak (n=69) seme-alabak ditu.

Inkestatuen adina 1. grafikoaren bidez ikus daiteke:



1. Grafikoa. Inkestatuen adina ehunekoetan.



### 3. EMAITZAK

Inkestetatik jaso ditugun emaitzak, metodologian aipu egindako helburuen arabera aztertzea erabaki da.

#### 1. San Miguelgo auzoak Mikelats Kultur Elkartearen funtzioei buruz duen hautematea zein den jakitea.

Lanaren hasieran aipatu dugun eran, Mikelatsek bi ataletan banatzen ditu bere ekintzak; kulturalak eta kiroltakoak. San Miguelgo auzokidearen gehiengoak argi dauka bi alor horiek garatzen direla: %73,6k (n=92) uste du kultura sustatzearen helburua betetzen duela eta kirola sustatzen duenarekin ados dagona %60 (n=75) da.

Kultur Elkarte honen funtzioetan sartzen garenean datuak positiboak dira: Mikelats agente transmisore gisa identifikatzen du %67,2k (n=96), errespetuzko, parte hartze, inklusiozko baloreak transmititzen dituela esanik. Emakumeek argiago dute balore sozialak transmititzen dituela, %75,7k (n=53), hain zuzen, gizonen %58,9ren (n=43) aurrean.

San Miguelgo eta Euskal Herriko ondarea mantentzeko dagokionez, inkestatuen gehiengoak, %86,1k (n=123), alegia, herriaren kulturaren ezagutzak (Olentzero, Patrioiaren jaiak, Euskal dantzak, Bertsolaritza...) transmititzen dituela dio. Kasu honetan ere, emakumeen %91,4 (n=64) ados dago, gizonen %80,8ren aurrean (n=59).

Kultur Elkartearen beste funtzio soziohezitzaile bat aisialdirako hautabideak sustatzea da, eta hau ere positiboki identifikatu dute parteideek. Mikelatsek aisialdirako alternatibak proposatzen dituela uste du %72k (n=90) Bestalde, Mikelatsek parte izatearen sentsua garatzeko aukera eskaintzen diela helarazi dute. Inkestatuen gehiengoak herriagatik eta herrirako lan egiten duela baieztatzen du eta Mikelatsek burututako esfortsua baloratzen du.

Datuetan ikus daitekeenez, elkarte honen funtzio soziohezitzaileak (baloreen eta kulturaren transmisioa, herriari protagonismoa ematea eta aisialdirako hautabideak sustatzea) oso ondo baloratzen dituzte. Are gehiago elkarteaz galdetzen zaienean: %7k (n=9) Mikelats Elkarteaz harro dagoela; burutzen duten lana ondo dagoela eta baloratzen dutela; eta auzoari laguntzen jarraitu behar dutela aipatu nahi izan du, hobekuntzak proposatze galderan.


Halaber, inkestatuen %82,4k (n=103) uste du Mikelats beharrezkoa dela San Migueleko identitatea mantentzeko eta %81,6k (n=102) komunitateari kohesioa emateko. Hala eta

guztiz ere, Mikelatsen ideologiarekin identifikatzen diren galdetzean, oso adierazgarriak diren erantzunak jaso dira: %36,8k (n=46) bakarrik baietza eman du; %30,4k (n=38) ez du iritzia azaldu, ez bata eta ez bestea aukera erantzun baitu; %16,8k (n=24) ez du galdera erantzun; eta %16,8k (n=21) ezetz esan du; eta Mikelatsek burututako ekintzekin identifikatzen dena %46,4 (n=58) da.

Era berean, Elkarte kideen komunikazioa eta jarraera oso erreminta garrantzitsuak direla uste dute auzokideek. Komunikazioaren inguruan dauden hobekuntza proposamenak anitzak dira: sentsibilizazioa sustatu behar dutela; auzoak inplikatzekeo jarrera sustatzea; auzoari deialdia egitea; web orria sortzea haien ideologia, helburuak eta ekintzak ezagutzeko etab. Jarreraren inguruan hauek izan dira erantzun deigarrienak: Mikelatseko kideen jarrera eta heziera aldatzea (hurbilagoak eta apalagoak izatea); protagonismoa elkarteari eta auzokideei ematea, eta ez Mikelatseko Zuzendaritza Batzordeko kideei; auzokideen beharrak kontuan hartzea; pazientzia izatea auzo elkarrekiko jarrera adierazteko, etab.

**2. Mikelats Kultur Elkarteak burutzen dituen ekintzen kudeaketa eta difusioari buruzko iritzia ikustea.**

Mikelats Kultur Elkarteak sustatzen dituen ekintzez informatzeko, baliabide desberdinak erabiltzen ditu: kartelak eta sare sozialak, besteak beste. San Miguel auzo txikia denez, aho-ahozko informazio transmisioa ere ematen da. Auzoko kideei elkarteak ematen dituen berriez edo burutzen dituen ekintzez nola informatzen diren galdetzean, 2. grafikoan ikus daitekeen eran, %35,7k (n=51) kartelak eta aho-ahozko informazioa erabiltzen duela dio, nahiz eta gehiengoak bata ala beste erabili. Aztergai den elkarteak bai Twitter bai Facebook kontuak ditu baina %18,2k (n=26) soilik jarraitzen ditu, eta horietatik %4,2ak (n=6) erabiltzen du informazioa jasotzeko.



2. grafikoa. Informatzeko iturrien erabilera ehunekoetan.


Komunikazioa ez da soilik informazioa bideratzea, komunikazioa bi noranzkoetan (Mikelats eta auzokideak) eman behar da. Hori dela eta, San Miguelgo auzokideei

galdetu zaie zer jarrera adierazten duten gertaera, jardunaldi edo ekintza bat gustuko ez dutenean. Inkestatuen gehiengoak (%54,8) dio konformatzen dela; %10,5 (n=15), aldiz, kexatzen da, baina ez du ezer egiten. Erantzun hauek lotura estua daukate jarduerak, ekitaldiak eta abar hobetzeko iradokizun berriak proposatzen duten galderarekin. Izan ere, inkestatuen %43,4ak (n=62) ez ditu proposamen berririk egiten. Beraz, nahiz eta desadostasunak egon edo jendea kexatu, bakarrik %16,1ak (n=23) hobekuntzak proposatzen dizkio Mikelatsi.

Orokorrean, ekintzei buruz galdetzean, umeentzat, gazteentzat edo helduentzat burutzen diren jarduerak nahikoak diren galdetu zaie. Inkestatuen gehiengoak (%77) umeentzako ekintza nahikoak direla diote, baina egoera nahiko aldatzen da gazteentzako eta helduentzako jarduerari buruz galdetzen zaienean: %38,5ak ez du uste gazteentzako ekintzak nahikoak direnik. Baina gazteen %35k dio ekintzak eskasak direla.

Urtean zehar Mikelatsek gauzatzen dituen jarduerak ezagutzen dituzten eta haien iritzari buruz galdetu zaie. Inkestatuek daukaten ezagutza galdetu zaienean, %54,6k (n=78) Mikelatsek burutzen dituen ekintzak ezagutzen dituela dio; eta, %69,3k (n=99) badaki Elkarteak urte osoan zehar lan egiten duela sustatzen diren ekintzak antolatzeke; ia inkestatuen erdiak guztiz argi dauka eginkizun hori.

3. grafikoan ikus daitekeenez, jarduera guztiak nahiko ondo baloratzen dituzte, batez ere, San Miguelgo jaiak. Jaiak, San Miguelgo auzoan eragiten duten ekintza garrantzitsuena dira, adin tarte guztientzat zuzendutako ekintzak baitaude.



3. grafikoa. Mikelats Kultur Elkarteak burutzen dituen ekintzen balorazioa ehunekoetan.

Inkestatuen %27,3k (n=39) hobekuntzak jardueretan proposatzen ditu. Gehien errepikatzen den hobekuntza gazteen ekintzei zuzenduta dago; baina beste hainbat

iradokizun ere daude: Euskal kultura eta euskara sustatzen duten jarduera gehiago burutzea, kontzertuak hobetzea, urtean zehar egiten diren ekintzak hobetzea etab.

Ekintzetan hobekuntzak egoteko proposamenak anitzak izan dira: alde batetik, komunikazioaren alorrean hauek aurki ditzakegu: parte hartzaileei gehiago galdetu behar zaiela, pertsonen iritzia ezagutzeko baliabideak sustatzea (botoaren bidez, esaterako) eta pertsonen iradokizunak entzutea eta onartzea. Bestetik, aurrekontuetan gardentasuna adieraztea, adin guztietako pertsoneri ekintzetan parte hartzeko aukera ematea, herriaren parte hartzea sustatzen dituzten jarduerak sustatzea etab.

Zer ekintza gehituko zuketean galdetu zaienean, erantzun anitzak eman dituzte baina esanguratsuenak, hainbatetan errepikatu direlako, hauek dira: kirolarekin erlazionatuak (futbol sala eta goitiberak); gastronomiarekin erlazionatuak (janari popular gehiago egitea eta txapelketak); kotxeekin erlazionatuak (Slalom Drift, rally, cars...); gazteentzako ekintzak, orokorrean; jai egunetatik kanpo jarduerak (torneoak, erakusketak, kontzientziaziozkoak...); eta koadrilen parte hartzea sustatzen dituztenak.


### **3. San Miguelgo auzoa Mikelats Kultur Elkartearen inguruko parte hartzearen ezaugarriak ikertzea.**

Aurreko bi helburuetan parte hartzeari buruz hitz egin dugu, baina atal honetan sakonkiago landuko dugu gai hau. Elkarteak bi eratako partaidetza eskaintzen du: ekintzetan bertan parte hartzen eta ekintzen antolaketan boluntario gisa parte hartzen.

Lehenengoari dagokionez, nahiz eta inkestaturen gehiengoari Mikelatsek sustatzen dituen jarduerak berdin ez eman, 4. grafikoan ikus daiteke %38,5a (n=55) dela parte hartzen dutenen portzentajea. Emakumeek gehiago parte hartzen dutela diote, %44,3 (n=31), hain zuzen, gizonen %32,8ren (n=24) aurrean. Nahiz eta antolatuta dauden ekintza gehienak umeei zuzenduta egon, eta gurasoek jarduera askotara bertaratu, seme-alabak dituzten eta ez dituzten parte hartze tartea oso txikia da.

Ekintzaren antolakuntzan kooperatzeari dagokionez, inkestaturen herenak laguntza eskaintzen duela dio. Emakumeen %28,6k (n=20) ez du interesik erakusten; eta gizonen are gutxiago %42,4k (n=33), zehazki.

Ekintzak, jardunaldiak eta abarretan boluntario gisa aurkezteko aukera kontsideratzen duten galdetzean, ia erdiak ezetz esan du, baina gutxi batzuk (%29,4) antolakuntzan kolaboratzea baloratzen dute: gizonen (%34,3) gehiago daude prest boluntario lez parte hartzeko, emakumeek (%24,3) baino. Ikus daitekeen moduan, interes gutxiago dago kooperatzeko eta boluntario gisa laguntzeko. Beherakada oso nabaria da.



4. grafikoa. Auzoak Mikelats Elkartean duen parte hartzea.

Hobetze proposamenetan, San Miguelgo auzoak partaidetzaren inguruan ere hitz egin du: auzokideek laguntza gehiago eskaini behar dutela diote; elkartearekin lanean jardun nahi duten boluntario kopurua handitzea; inplikatzeari; eta lankidetzan aritzea. Mikelats Elkartearen aldetik ere, parte hartzea sustatu behar duela aipatzen dute: auzokideei deialdi bat egitea, parte hartzearen garrantziaz kontzientziaz eta koadrilekin aldizkako kontaktua mantentzea.

Korrelazio positiboak hurrengo aldagaien artean ematen dira (datuak ikusteko, ikus 3. eranskina):

- Mikelats San Miguelgo identitatea mantentzearen beharra, ekintzen antolakuntzan boluntario gisa aurkeztearekin.
- Mikelatsen ideologiarekin eta ekintzekin identifikazioa eta ekintzetan parte hartzea.
- Mikelats San Miguelgo identitatea mantentzearen beharra eta ekintzak bertan parte hartuz erraztea.
- Mikelats burututako ekintzekin identifikatzea eta Mikelats sare sozialetan jarraitzea.
- Era berean, Mikelats sare sozialetan jarraitzea, Mikelats burututako ekintzekin identifikatzea.

#### 4. Auzokideen hautematek elkartearen mehatxuak, ahuleziak, indargarriak eta aukerak aztertzea.

Inkestan jaso ditugun datuek, AMIA (aukerak, mehatxuak, indarrak eta ahuleziak) egiteko aukera eman digute. Instrumentu honek aukera emango digu, proposamenak

bideratzeko, eta elkarteak, nahi izatekotan, proposamen horiek kontuan hartzeko eta aurrera eramateko.

BARRUKO FAKTOREAK	KANPOKO FAKTOREAK
<p><b>Indarrak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aisia sustatzen duen elkarte bakarra da auzoan.</li> <li>- San Miguelgo auzoaren identitatea mantentzeko beharrezkoa da.</li> <li>- Auzoarentzat lan egiten du.</li> </ul>	<p><b>Aukerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dago axolagabetasunik.</li> <li>- Auzokideak elkarteak burutzen dituen funtzio soziohezitzaileak identifikatzeko gai dira.</li> <li>- Emakumeak gehiago baloratzen eta ezagutzen dute elkarteak.</li> </ul>
<p><b>Ahultasunak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Helduentzako eta gazteentzako ekintzak gutxi dira.</li> <li>- Jende gutxi parte hartzen du ekintzen antolakuntzan.</li> <li>- Auzoa inplikatzeko baliabide falta.</li> </ul>	<p><b>Mehatxuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hobekuntza proposamen asko baina boluntario gutxi ekintzetarako.</li> <li>- Jende gutxi identifikatzen da Mikelatsen ideologiarekin.</li> <li>- Gizonak ez dute emakumeak bezain ondo baloratzen eta ezagutzen elkarteak.</li> <li>- Jendearen inplikazio falta.</li> </ul>

#### 4. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Aurreko emaitzek informazio aipagarria eman didate, ondorioak ateratzeko eta azkenik, proposamen bat bideratzeko.

Emaitzen lehenengo zatian, Mikelats K. E.aren funtzio soziohezitzaileei (agente transmisorea, ondarearen mantentzea, aisialdirako hautabideak sustatzea, auzoaren identitatea eta kohesioa mantentzea, komunikazioa bermatzea eta herrirako lan egitea) buruz galdetzean, hauek hauteman dituztela ondoriozta daiteke. Mikelats elkarte txikia izanik, eta bertan lan egiten duten pertsonak elkartera soilik dedikatzen ez direnez, hezkuntza esplizitu burutzen da. Hau da, ez daukate baliabiderik proiektuak idazteko, epe luzerako helburuak finkatzeko edota ebaluazioak garatzeko. Halere, San Miguelgo auzokideek oso ondo identifikatzen dituzte (emakumeek gizonek baino gehiago) elkartearen funtzio soziohezitzaileak. San Miguelgo auzokide gehienak, ostera, ez dira Mikelatsen ideologiarekin identifikatzen. Kontraesankorra da funtzioen hautematean eta pertzepzioan hain emaitza onak lortzea eta ideologiarekin ez identifikatzea. Normalean, ideologia hitza entzuten dugunean, politika arloari atxikitzen diogu. Nire ustez, jendeak bide horretatik eraman du, Mikelats osatzen duten kideetan zentratuz eta ez elkartean bertan.

Emaitzetan jaso diren datuak aztertuz, identitatea eta parte hartzea loturik azaltzen dira, marko teorikoan aipaturikoarekin bat eginez. Talde edo komunitate senttua duten baloreak barneratzen direnean, identifikatuak sentitzen garenean eta kulturaren ondareari behar besteko garrantzia ematen zaionean, parte hartzeko ardura sortzen da. Mikelats Elkartearekin identifikatzen diren pertsonak gehiago parte hartzen dute. Hau jakinda, beharrezkoa ikusten dut Mikelatsen ideologiaren kontzeptua argitzea. Era berean, parte hartzea ere komunitatearen sentsuaren esku dago: komunitatearen parte izatea eta sentitzea eta laguntza sentimendua garatzen denean, parte hartzea altuagoa izateko aukera dago (McMillan & Chavis, 1986). Gogoratu behar dugu, parte hartzea komunitateak duen protagonismoa sustatuz lortzen dela, komunitatea esku hartzeko subjektua soilik ez delako, prozesuaren protagonista baizik (Pascual, 2007). Beraz, auzo honetako kide batzuk protagonistak sentitzen direla esan dezakegu, baina askok oraindik ez. Nire ustez, hori gerta daiteke laguntza sentimendua (solidaritatea, laguntza, elkarlana, taldeko perspektiba, etab.) garatuta ez dagoelako, boluntario aurkezteko jende askok ezetz esan baitu. Eta ezin dugu ahaztu talde sentimendua garatzea kultur elkarten funtzio bat dela, ezinbestekoa jendearen parte hartzea lortzeko (Cid & Peres, 2007).

Elkarte kulturelek sustatzen duten aisia indibiduen eta taldeen parte hartzean oinarritzen da komunitatearen protagonismoa sustatzeko eta komunitatean sareak eta loturak sortzeko (Cid & Peres, 2007). Baina Mikelats K. E.aren kasuan, ez dago parte hartzeko ardurarik. Emaitzetan jaso den eran, parte hartzea txikia da, bai jardueren parte hartzean, bai ekintzen antolakuntzan. Esan dugunaz gain, ekintza gehienak umeentzat bideratuta daudela eta gazte eta helduentzako jarduerak eskasak direla ondoriozta dezakegu. Posiblea da parte hartzea eskasa izatea inkestatuen gehiengoa helduaroan aurkitzen delako eta Mikelatsek burutzen dituen ekintza asko adin tarte horretara bideratuta ez egotea. Hala bada, adin tarte guztien beharrak ez daudela aseta ondoriozta dezakegu.

Jardunaldietan boluntario gisa aurkezteko interesa oso murriztua da. Honek arreta deitu nau, izan ere, ekintzek dakartzaten antolakuntzaren esfortzua asko baloratzen dutelako. Esfortzua baloratzea ez da nahikoa hainbeste jarduerarako Mikelatsen kide kopurua oso txikia bada, eta emaitzetan ikusten den legez, inkestatu gehienek badakite nortzuk eta zenbat aritzen diren Mikelatsen. Era berean, auzoak argi dauka Mikelats irabazi asmorik gabeko elkartea dela, eta bertako kideek ematen duten dedikazioa ordainduta ez dagoela. Zer aspektu hobetuko zuketean galdetzean ere, proposamen asko ekintzetara

bideratuta egon dira, berriro ere Mikelatseko kideek duten karga handituz. Elkarte Kulturelek solidaritatean, errespetuan eta laguntzan oinarritzen dira eta portzentajeek kontrako baloreak adierazten dituzte. Ezinbestekoa da argi izatea, parte hartzea ez dela soilik kultura kontsumitzea (Barrado, 1982), kultura komunitateak sortzen eta garatzean ere datza. Beraz, parte hartzea ere jardunaldiak eta ekintzak antolatzea da, proposamenak egitea, boluntario gisa aurkeztea, laguntza eskaintzea. Horiek guztiak talde sentimenduari dagozkie. Komunitatean sareak eta loturak sortzen lor dezakegu kooperazio eta komunikazio jarrerak, komunitateak elkarrekin lan egiteko (Cano, 2005). Komunikazio jarrerak sortzea ezinbestekoa da Mikelats Elkartearentzat, pertsonok elkarrekin eta elkarrengandik lan eta ikasi ahal izateko (Cano, 2005). Mikelatsek hainbat baliabide (sare sozialak, kartelak, aho ahoz...) erabiliz bideratzen du komunikazioa. Honen inguruan esanguratsuen aipatzearen, egun, sare sozialak jende askok erabiltzen dituela, komunikatzeko eta informatzeko baliabide oso eraginkorra eta ahaltsua baita. Halere, datuek kontrako egoera adierazten dute informazio-hartzaileengan: Facebooken 726 adiskide dituzte eta erantzundakoen %4ak soilik informatzeko erabiltzen du.

Ezin dugu ahaztu komunikazioa ez dela soilik informazioa helaraztea, elkarre batek jendea sorrarazi, kitzikatu, bultzatu, sentsibilizatu, motibatu eta interesa piztu behar du, elkarteak bultzatzen dituen ekintzetan parte hartze aktiboa lortzeko, eta auzotik hori eskatzen da. Baina, jendeak ere bere partetik jarri behar du. Mikelats Elkarteak, bere egoitzan, iradokizunak egiteko postontzi bat dauka. Bertako kideek, lau urte daramatela jada, eta ez dute inoiz iradokizunik jaso. Inkestan, aldiz, proposamen asko jarri dituzten ekintzen eta komunikazioaren inguruan. Halere, gehienak ekintzetara bideratu dituzte, elkartearen funtzioak ekintzetan soilik ikustea pentsatzera eramanez.

Ondorio hauei guztiei erantzun bat emateko, proposamen anitzak bururatu zaizkit, baina argi izan behar dugu Mikelatsek giza baliabide eta baliabide ekonomikoak mugatuak dituela eta horiei moldatu behar naizela proposamen bat bideratzerakoan. Hori dela eta, nire proposamena San Miguel auzoaren iradokizunak, zalantzak, iritziak eta abar jasotzeko baliabide berriak sortzera bideratuta egongo da, Facebooken plataforma (formulario) bat eraikiz. Lehen aipatu dudana, sare sozialak informatzeko eta komunikatzeko baliabiderik indartsuenetarikoa da; hortaz, ezinbestekoa izango da hauek sustatzea. Jendeak, modu erraz batean bere iritzia emateko aukera badu, Mikelatsek egiten duen lanaren parte sentituko da, baloratua, prozesuaren protagonista,



alegia. Horrela, jendeak bere nahiak entzuten direla jakitean, bere beharrak asetzen direla ikustean, ekintzetan parte hartzeko eta hauen antolakuntzan lan egiteko gogo handiagoak izango ditu, era berean, identifikatuak senti daitezkeelako.

Bukatzeko, azpimarratzea, ikerketa hau balio handikoa izango dela Mikelats Kultur Elkarterako. Alde batetik, orain arte ebaluaziorik egiteko aukerarik ez dutelako izan, eta bestetik, auzokideen iritzia jasotzeko baliabidea sortu dugulako. Jaso ditugun emaitzak bideragarriak eta adierazgarriak izan dira, sareak eta ebaluatzeo kultura garatu dugu eta ebaluazioarekiko dauden aurreiritziak murriztu. Mikelatsek ateratako ondorioekin, proiektua indartzeko eta hobetzeko aukera dauka, eta horrela hazten eta hezten jarraitzeko. Hala ere, ikerketa honek hainbat muga ditu, izan ere, inkestaren emaitzak anitzak izan dira eta ezin izan dira guztiak aztertu proposamen integralagoa garatzeko. Gainera, ez da kontuan hartu elkartearen ikuspuntua datuak kontrastatzeko eta ezin izan da ebaluazio parte hartzailea garatu, aukera aberasgarriena kultur elkarte batentzat. Beraz, etorkizuneko ildoak hurrengoak izango dira: elkartearen eta auzokideen beharrak aztertzeko helburu gehiago finkatzea, elkarte eta auzoaren hautematea konparatzea eta ebaluazio parte hartzailea egitea.

Horrenbestez, proposamen honek ez ditu emaitzetan jasotako arazoak konpontzen, baina hauei irteera emateko lehenengo urratsa izan daiteke. Bestalde, eta arlo pertsonalari erreferentzia eginez, ikerlanak nire ezagutzak handitzeaz aparte, beste norbaiti laguntzeko eta elkarte kulturalak komunitateetan duten funtsezko papera aldarrikatzeko aukera eman dit.

## 5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa. *EHAA 134*. zbkia [linean]. <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2007/07/0703902a.pdf-tik> berreskuratuta [2007-07-12].
- Barrado, J. M. (1982). La animación sociocultural, un esfuerzo de aclaración. *Documentación Social*, 49, 11-24. <http://www.caritas.es/imagesrepository/CapitulosPublicaciones/725/02-%20LA%20ANIMACION%20SOCIOCULTURAL,%20UN%20ESFUERZO%20DE%20ACLARACION.PDF-tik> berreskuratuta.
- Bolunta: boluntariotza eta parte hartzeko agentzia. 2016ko otsailaren 11n <http://www.bolunta.org/-tik> berreskuratuta.
- Calvo, A. (2002). *La animación sociocultural: una estrategia educativa para la participación*. Madrid: Alianza editorial
- Cano, A. (2005). *Tema 2: El tabajador social: animador de grupos*. 2016ko urtarrilaren 23an [http://www2.ulpgc.es/hege/almacen/download/38/38204/t2\\_el\\_animador\\_alumnos\\_9\\_nov\\_05.pdf-tik](http://www2.ulpgc.es/hege/almacen/download/38/38204/t2_el_animador_alumnos_9_nov_05.pdf-tik) berreskuratuta.
- Carrera, E. (2009). Asociacionimos en el tiempo libre. Otero, J. C. (Koord.). *La Pedagogía del Ocio: nuevos desafíos* (69-77). Lugo: Asax
- Chacón, M. C. (2010). "Concepto, objetivos y funciones de la animación sociocultural". *Innovación y experiencias educativas*, 29. [http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_29/M\\_CRUZ\\_CHACON\\_2.pdf-tik](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_29/M_CRUZ_CHACON_2.pdf-tik) berreskuratuta.
- Cid, X. M. & Peres, A. (Ed.). (2007). *Educación social, animación sociocultural y desarrollo comunitario*. Vigo: Universidade de Vigo.
- Domínguez, A. (2003). La museología participativa. La función de los educadores de museo. *Actas de los XIII Cursos Monográficos sobre Patrimonio Histórico* (99-117 or.). Reinosa. [https://books.google.es/books?id=9LNvRyCQpigC&pg=PA99&lpg=PA99&dq=dominguez+almudena+museos+participativos&source=bl&ots=EkGNNP0qe1&sig=IuCYGY-VwPIWveL1ZPLBXEdTyfM&hl=eu&sa=X&ved=0ahUKEwj6v4Hhw\\_fMAhUKXBoKHfmzAscQ6AEIzAB#v=onepage&q=dominguez%20almudena%20museos%20participativos&f=false-tik](https://books.google.es/books?id=9LNvRyCQpigC&pg=PA99&lpg=PA99&dq=dominguez+almudena+museos+participativos&source=bl&ots=EkGNNP0qe1&sig=IuCYGY-VwPIWveL1ZPLBXEdTyfM&hl=eu&sa=X&ved=0ahUKEwj6v4Hhw_fMAhUKXBoKHfmzAscQ6AEIzAB#v=onepage&q=dominguez%20almudena%20museos%20participativos&f=false-tik) berreskuratuta.
- Escarbajal, A. & Martínez, S. (2012). El papel de la educación y los museos en la inclusión social. Una contribución desde la animación sociocultural. *Educatio siglo XXI: Revista de la Facultad de Educación*, 30(2), 445-466. <http://www.siiis.net/documentos/ficha/206576.pdf-tik> berreskuratuta.
- Escarbajal, A. (1993) Animación sociocultural y servicios sociales, dos trabajos "diferentes" para un mismo objetivo. *Pedagogía Social: Revista interuniversitaria*, 8, 61-78. <https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/2576872.pdf-tik> berreskuratuta.
- Gillet, J. C. (2006). *La animación en la comunidad: un modelo de animación socioeducativa*. Bartzelona: Graó
- Lukas, J. F. & Santiago, K. (2009). *Evaluación educativa*. Madrid: Alianza.
- Márquez, J. (2000). La mirada, los museos y la memoria. *Correo del Maestro*, 52, 16-23. <http://rodolfogiunta.com.ar/Patrimonio/Biblio%20013.pdf-tik> berreskuratuta.
- McMillan, D. W., & Chavis, D. M. (1986). Sense of community: A definition and theory. *Jounarl of Community Psychology*, 14(1), 6-23.

- Núñez, H. (2014). *Funciones y estrategias socioeducativas de los técnicos comunitarios en procesos de Evaluación participativa de Acciones Comunitarias*. (Bartzelonako Unibertsitatea).  
<http://www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/283902/hnl1de1.pdf?sequence=1>-tik berreskuratuta
- Otero, J. C. (koord.). (2009). *La pedagogía del ocio: nuevos desafíos*. Lugo: Asax.  
<http://www.apega.org/attachments/article/279/pedagogio.pdf>-tik berreskuratuta.
- Pascual, B. (2007). La evaluación de la intervención comunitaria: un marco para la reflexión. *Pedagogía Social: Revista interuniversitaria*, (14), 129-138.  
<http://www.redalyc.org/pdf/1350/135012681010.pdf>-tik berreskuratuta.
- Perez, R. (2000). Evaluación de programas educativos. *Revista de investigación educativa*, 18(2), 251-287.  
<http://revistas.um.es/rie/article/viewFile/109031/103701>-tik berreskuratuta.
- Placer, F. (1991). *Animación sociocultural y educación*. Vitoria: Gobierno Vasco
- UNESCO (1982). *Declaración de México sobre las políticas culturales. Conferencia mundial sobre las políticas culturales México D.F.*  
[http://portal.unesco.org/culture/es/files/35197/11919413801mexico\\_sp.pdf/mexico\\_sp.pdf](http://portal.unesco.org/culture/es/files/35197/11919413801mexico_sp.pdf/mexico_sp.pdf)
- UNESCO (2003). *Aprender a vivir juntos: ¿hemos fracasado? Síntesis de las reflexiones y los aportes surgidos durante la 46a Conferencia Internacional de Educación de La UNESCO: Ginebra, 5-8 de Septiembre de 2001*. Ginebra: Oficina Internacional de Educación.  
[http://www.ibe.unesco.org/sites/default/files/ICE\\_2001\\_summary\\_sp.pdf](http://www.ibe.unesco.org/sites/default/files/ICE_2001_summary_sp.pdf)-tik berreskuratuta.
- Ventosa, V. J. (1993). *Fuentes de la animación sociocultural en Europa*. Madrid: Editorial Popular.